

MUXIKA'tar TENE'ren

GABON

ta

AMONARIZ'tar ANDER'en

BIOTZ ONEKO NESKATIĀ

Umientzat antzerkitxoak

1935 - Tolosa'n. - I. LOPEZ MENDIZABAL'enean.

## ANTZEZ-LAGUNAK

---

<i>MALENTXO</i> . . . . .	}	Zazpi urte.
<i>IMANOL</i> . . . . .		
<i>IÑAKI</i> . . . . .	}	Zortzitik amar urtetako mutil-koskofoak.
<i>KOLDO</i> . . . . .		
<i>JONTXO</i> . . . . .		
<i>IXIDOR</i> . . . . .		
<i>ANDONI</i> . . . . .		



# ≡≡≡ GABON ≡≡≡

## ATAL BAKAÑA

---

Langiĕ etxeko sualde txukuna; ezker-eskuĭtan ate bana ditula. Goĭtik sutondoa antziĭnako erara, kebidē-baĕen zabalaz. Sutan dauden lapiko, eĕa-tiĭu, pertz eta abar, apari aundiaren gerkuna adierazten dute. Sutondoaren eskuĭtik leioa. Bertan bixigu bat zakatzetik zintzilĭk. Ostian, aras<sup>a</sup>, mai, alki ta ontzi, egokien diran eraz jafiak. Afatsalde berandua.

## LENENGO AGEĀALDIA

Malentxo, bakaĕik

**Malentxo**—(*Mai-ondoan exerita, kopin bat altzoan duala beroni izketan.*

A nere polita!... nere polita!... Ez dezu nanan eĕin nai?... Poparik nai ez gaizto txiki ofek?... Nexka aundi egiteko, jan eĕin bear da!... Apapara eramango zaitut! (*zutitzen da*) Amatxokin apapara e?... Nai?... Bai, nai. Apapara orain! (*kopiĕna besoan duala bi edo iru bira ematen ditu*) (*geldituta*) Taka-taka nai?... Bai!... Atoz taka-taka... (*eskutxotik eldu, ta nolabait lufean erabiltzen du*) Ez dakizu ibiltzen?... ez dakizu?... Amatxok irakatziko ufengo baten! (*ixil-unea kopiĕna besoan duala beroni begira*) (*beretzat*) Denda betiko Mirentxo'ren kopiĕnak oĕez daki. Nereak ez... Eskutxoa eman, eta pauso ematen-du... (*kopiĕnari astindu bat emanaz*) Onek ez!... Afek, begiak itxi ta iriki, onek ezertxo ez!.

Osaba amerikanoak ekati omen dio Mirentxu'ri ta ofengatik ain edefa... Neri aitatzok erosi dit osaba amerikano-rik ez detalako, baĕna baleike ufengo baten izatea, ba Mirentxu'k ere len ez zuan eta etori eĕin zaio... (*poztuta*) Afek ekatiko didan kopiĕnak, oĕez, begiak itxi ta irikitzen, eta negar egiten ere... Negar?... Ez! Aitatzok ez du negar-tirik nai!... Nik negar eĕinda ere, asefetuta jartzen da. Kopin negartia ekartzen ba'didate, bifitan... Ez, ez! Ez dezala negatik eĕin. Pafe, bai; pafe... (*ixil-unea kopiĕnari begira*)

Al Nere au ere guztiz polita da. Amatzok esaten didanez, kopiñetan politena... Mirentxu'renak, begi afeak omen ditu, ta nereak beltz-beltzak. Beltzak, afeak baño politagoak izaten omen dira. Ofengatik nere au Mirentxu'rena baño politagoko kopiña... (*ixil-unea kopiñari begira*) Amatzok esaten du... ofela izango da... Bai... bai... polita... polita... da... (*Ezkefaldetik bañuan norbaitzuen zarata entzuten da. Muti-koskor abots batek: Ez, ez! Gure etxean gordeko degu. Besteak: Bai, bai!*).

**Malen.** —(*Zaratadak entzunda*) Oil... (*joaten da ezkefeko atera kopiña besoa daramala*) (*atetik*) Imanoltxo-ta beren «jaiotzaz!» (*mutiltxoen zarata ber-bertantxe*).

## BIGAÑEN AGEÑALDIA

Malentxo, Imanol, Koldo, Iñaki, ta Jontxo

**Malen.** —(*Poz-pozik*) Zer? Jaiotza ere badakarzute?...

**Imanol** —Bail gurean gordetzera!

**Koldo** —Betiko ez baña...!

**Iñaki** —Eez...!

**Jontxo** —Ez da zuena-ta...

**Ima.** —Badakigu. Bañan beronen gauzak banandu ta bakoitzari berea eman arte.

**Malen.** —Txaola beintzat, gurea da; gure aitatzok egiña...

**Jon.** —Josu Aurtxoa baña, botikako neska zafarena...

**Malen.** —(*Bereala*) Ez da ofela esaten lotsagabea! Nere amak esaten du, ura dala... (*oldoztu ondoren*) «Señorita Mari-Pili» (*irakasle*) Entzun?... (*indañez*) se-ño-ri-ta-Ma-ri-Pi-lil!... Ufengoako ikasi.

**Kol.** —Astotxoa nerea da...

**Malen.** —(*«Jaiotza» bañura begiratu ondoren*) A zer...! Belafi bakafa du.

**Kol.** —Nere afebatxoak ausi diolako.

**Malen.** —Ta zer?... Bakafa beintzat!

**Ima.** —(*Malentxo'ri*) Zaude ixilik befitsua!... Zuk ez dezut muti-  
len gauzetan sartu bear!

**Malen.** —(*Muturtuta*) Amari!

**Ima.** —Zer?

**Malen.** —Befitsua deitu nazula!

**Ima.** —A! Berak ere ofela deitzen zaitu. (*Malentxo asefe antzez eskui aldera baztartzan da*).

**Iña.** —San Jose, Andra Mari, idia, ta... gure izebarenak...

**Malen.** —(*Mutilen'gana urbilduaz*) (afo) Izafa, aska, lastoa, gorol-

dia, ta... gureak. Gure aitatzok jafiak. Ēntzun? Žure astōtxo belafi bakafak baño ge'a'ō balio dute, Koldo.

**Kol.** —Ez baña Iñaki'ren izebaren Andra Mari, San José ta idiak baño geiagol

**Malen.** —Ta zer? Gure aitatzok «jaiotza» guzia ofela apain jafi du, ta ofek geien balio du.

**Jon.** —Parolak baña, efetore jaunak ipiñi ñizkigu. Bereak parolak berea argia, berea dana.

**Malen.** —Baña gure aitatzok «jaiotza» antolotu ez ba'leu, parol beafik ez!

**Ima.** —Zaude ixilik Malentxo! Befitsua! Ez besteren befitsua!

**Malen.** —Āmari, Imanol, amari! Befiz ere befitsua deitu nazu...! (*joaten da baztefera befiro*).

**Ima.** —Zu gabe, oraindño pake-pakean ibili gera... Besterik da, mutilak bakafik gabiltzanean...!

**Malen.** —(*erdi-negafez*) Āmari, bai, amari!

**Ima.** —(*eskui aldera erakutsiaz*) Gela ortan gordeko degu orain, eta gure aita etortzean, berak banatuko du ta bakoitzak bereak artuko ditu, nai?

**Besteak** —Bail

**Ima.** —Guazen.

**Kol.** —(*Berak eltzen duan makila Jontxo'ri utziaz*) Jontxo ta zu naikoa zerate orain au eramateko.

**Iña.** —(*Berea Imano'i utziaz baita*) Bai, guk emen geldituko gera. (*Imanol eta Jontxo eskuitik joaten c'ira «jaiotza» eramana.*)

## IRUGAĀREN AGEĀALDIA

### Malentxo, Iñaki ta Koldo

**Iña.** —(*Zerbait lafi*) Eta... nun degu gabon-sari zofoa?

**Kol.** —Izan ere...! (*bat-baten*) Al Ixidor'ek zuan.

**Iña.** —Bai baña, guri eman digu...

**Kol.** —(*Konturatuaz*) Egia!... Eta Jontxo'k artu dio...

**Iña.** —(*Konturatuaz baita*) Uste det eskuan zekafela onera etofi geranean. (*joaten da lafi ezkefetik*).

**Kol.** —Or utzi ote du? (*joaten da baita Iñaki'ren ondoren baña atean gelditzen da*) Iñaki, arkitu al dezuz?

**Iña.** —(*Zofo zuri bat eskuan dakařela*) (*biziro lasaitua*) Ēmen gure zofoa! Bildurtu naiz galdu ote gendun!

**Kol.** —(*Ārnas-luze artuaz*) Bai ni ere!... Nun zegon?

**Iña.** —Or maładi buruan...

**Malen.** —(*asefeaz aitzuta, ikusmiñez urbilduaz*) Zer dakarzute zofo ortan?

- Kol.** — Gabon-sari edefak ugari.
- Malen.** — Ea ikusi...! (*zofuari eltzen dio zabaldu naiez*).
- Iña.** — Utxi oni. Ez degu zabaldu bear Imanol eta Jontxo eto-  
fi artean.
- Kol.** — (*Oroituaz*) Eta nun gelditu zaizkigu Ixidoreta Andoni?
- Iña.** — Gu onara gatozela Goiko-kaletik igaro dan taldeak zen-  
bat bildu duan ikustera, bereala emen dirala-ta.
- Kol.** — A izateko ardura bestek bildu duana gatik!
- Iña.** — Andoni'ren kontuak. Afek eraman du Ixidore. (*Malentxore  
Kopiñari begira*) Au kopin polita, Malentxore!
- Malen.** — (*Afo*) Bai; aitatxok ekafia!
- Kol.** — (*Kopiña ikukatzen baita*) Ez da baña begiak itxi ta iri-  
kitzen dituztenetakoa!
- Malen.** — Ta zer? Osaba amerikanorik etortzen ba'zait, afek eka-  
fiko dit ofetariko eder bat... (*ixil-unea kopiña ikuskatzen*).
- Iña.** — Zure kopiñak Malentxore, Peloreneko Kontxita'ren antza du.
- Malen.** — Nor da Peloreneko Kontxita?
- Kol.** — Ez al dakizu estanku afean bizi dan jostuna?
- Malen.** — A, bai! Aretxek josi dit neri soñeko beña...!
- Iña.** — Ba kopin onek begietan bere antz aundia du. Esaten du-  
te, Kontxita'k begiak pintatu egiten ditula.
- Kol.** — Margoztu esaten dek, euskera garbiz.
- Iña.** — Bai, bai; margoztu...
- Malen.** — (*Lafi*) Zer esan dezu, nere kopiñak begiak pintatu egi-  
ten ditula?
- Iña.** — Ez...! Peloreneko Kontxita'k...
- Malen.** — A!... Beintzat, nere kopiñak ez du begirik pintatzen. Be-  
re-bereak ditu onelakoak.
- Kol.** — Bereak, baña pintatuak.
- Malen.** — Ez eeez! Bereak...!
- Kol.** — Jakiña. Baña pintatu dizkiotelako ditu. Ez al dakizu ba  
au kopiña dala? (*Malentxore kopiñari begira gelditzen, adi-  
adi ta oldozkor*).
- Iña.** — Ofengatik du onek Kontxita'ren antza.
- Kol.** — Bai. Esaten dute baita, Kontxita'k, begiak ofela jartzen  
ditun ezkeroko merkeroko kopin antza artu duala.
- Malen.** — Nere kopiña ez da merkerokoa. Garestia da... Aitatxok  
ekafia...
- Iña.** — Baña Kontxita'ren antz aundia du!
- Kol.** — Eta Kontxita'k kopiñarena!
- Malen.** — Eeez...! eeez...! Nere kopiñak begiak bereak ditu!
- Iña.** — Pintatuak baña, Kontxita'k bezela...
- Kol.** — Margoztuak esaten dala; margoztuak.
- Malen.** — Eeez...! eeez...! eeez...! (*eskuitik sartzen dira Imanoleta Jontxore*)

## LAUGAREN AGEĀALDIA

### Lengoak, Imanol, eta Jontxo

- Ima. —E...! Orain, zofoa ustu bear degu!
- Jon. —Eta bildu ditugun Gabon-sariak bakoitzari dagokigun moltzokatan banandu.
- Iña. —Andoni ta Ixidor emen ez daudela?
- Jon. —Egia!... Aiek nunbaiten kalean gelditu dira...
- Iña. —Goiko-kaletik zijoan taldeak zenbat bildu duan ikustera joan dira.
- Ima. —Joan bila. Datozela.
- Kol. —Etofikoa dira nai baldin ba'dute; bestela, dabiltzala.
- Jon. —Ori!
- Iña. —Dabiltzala!
- Ima. —Orduan... geok egingo degu banaketa.
- Besteak. —Bail bail! (*zofoa mai-gañean ipiñita zabaltzen dute*).
- Malen. —(*Ikustera urbilduta*) Au gauzaz!
- Ima. —Lenengo, madariak aterako ditugu. (*ateratzen asten da*).
- Jon. —Ufengo, sagafak.
- Ima. —Madari gutxi daukagu.
- Kol. —Sagar eta laranja asko. (*guziak zofo-arakatzale*).
- Iña. —Baita intxaur eta gaztaña ugari ere!
- Jon. —Eta piku-malatuak...! (*pozez saltoka*) Au gauza gozoz!
- Ima. —Egon! Nik aterako ditu guziak! Ez nastu.
- Iña. —Bai; ta moltzokatan ipiñi.
- Ima. —(*Zenbatuaz*) Ara: Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi,.. Zazpi madari...
- Kol. —Zenbat lagun gera banaketarako?
- Iña. —Sei.
- Jon. —Bai. Bat gelditzen zaigu...
- Malen. —(*Bereala*) Ori neretzat!
- Ima. —Zu ez zera gure taldekoa.
- Malen. —Baña zure afebatxoa naiz.
- Ima. —Ta zer?
- Kol. —Guk ere baditugu afebatxoak.
- Jon. —Zotz egingo degu.
- Iñ.-Jon. —Bai, zotz!...
- Ima. —Azkenean. Eta zotz egin bear diran gauz guziaz beste moltzoka bat orain...
- Jon.-Ko. —Bai, bail!
- Iña. —Ederkil!
- Ima. —(*Madari bat eskuan duala*) Zotz egiteko moltzokarako,

gauzarik exkazenak. E?.. Madari au ta...

Iña. —Ez dek edefa!...

Jon. —Petra-Ximur'ek emana da...; ximufa ta erdi ustela berau.

Kol. —Ematerakoan ondo begitu du ba otafan, edefena aukeratzzen bezela.

Ima. —Ustelena aukeratu dik ba...

Kol. —Dolor alena!

Ima. —Dolor ez diran ugari ere izan ditugu emantzale! Au gauzaz.

Iña. —Bai. Abek sagar gofi edefak! Eta zenbat!...

Malen. —(Bat=baten zofotik sagar bat artuaz) Au neretzat!

Ima. —(Malentxo'ri sagara kenduaz) Ez!

Malen. —Amar!... Ez didazula sagar bat eman nai!

Iña. —Banaketa egin da gero, neretik emango dizut.

Malen. —(Erdi-negafez) Nik orain nai det!

Iña. —Ez!

Malen. —Amaril (lengo zokora baztertua)

Ima. —Sagar asko degu. (ateratzen ditu sagarak).

Jon. —Biña bai...

Iña. —Baita iruna ere.

Ima. —Bai. (zenbatuaz) Bi, lau, sei... amar... emezortzi... ogeil... Sei iruko emezortzi... iruna ta bi geiagol!

Kol. —Bi oek, zotz-egiteko moltzokara...

Malen. —(Beretzat) Ez didazute sagarik eman nai... ni gelara joango, bakar bakarik «jaiotza» nai bezela ikustera! (joaten da eskuitik).

Ima. —Orain laranjak...

## BOSGAÏEN AGEÏALDIA

Imanol, Jontxo, Koldo, Iñaki, bereala Andoni

Ima. —Orain laranjak... (Andoni'k barutik oju egiten du, lafi: Imanol!).

Jon. —Oii! Imanol abotsa! (guztiak adi).

Iña. —Bail... Bera da. (Andoni'k lafiago: Imanol... Imanol!) (joaten dira ezkefera atetik begira geldituaz).

Ima. —(Atetik kanpora oju!a) Zer? Imanol? igo!... (maladia igo-tzeko zalaparta e:tzutzen da).

And. —(Zalapartan sartuaz) Imanol! Imanol!... Ail... Ail... Ail...

Jon. —Zer? zer?

Iña. —(Bilduñez) Zer gertatzen zaik?

Ima. —Zer da?

Kol. —(Estu baita) Zer dakar onek?

And. —(Batera ta bastera lafi dabiñela) Emen dator! Emen dator!...



- Kol. —Nor?
- Iña. —Emen datofela?... (*Guziak larituta agertzen dira*).
- Jon. —Nor dator?
- Ima. —(*Laisterka gauzak zotoan sartuaz*) Badatofela?
- And. —Bail bail... Efi-zaiña! efi-zaiña! Amabial (*Abiatzen da eskuitik joan nairik*).
- Ima. —(*Bereala geldi-araziaz*) Efi-zaiña zertara?
- And. —Nere ondoren!
- Iña. —Ire ondoren? zerbait egin al dek?..
- Jon. —Zeeer?...
- And. —Nik ez! Ixidor'ek!
- Ima. —Ixidor'ek...!
- Kol. —Zer egin du ba?
- And. —(*Imanol'gandik askatzen dala*) Ezkutatu nai det!... ezkutatu! Ai! Efi-zaiña!
- Iña. —Ixidor ba'da zerbait egin duana zeren bildur aiz?
- Jon. —Oril...
- And. —Bai baña...!
- Ima. —Esan zer gerta zaizuten!
- And. —Eta efi-zaiña etortzen ba'da
- Iña. —Bai al daki ba onara etofi aizela?
- And. —E...e...ez!
- Kol. —Eta Ixidor ba'da...
- Iña. —Oril! Iri ez dik ezer egingo.
- Ima. —Gañera onara etprtzen ikusi ez ba'du... Esan zer dan.
- And. —(*bildur aundiz*) Juan gera Goiko -kaletik zijoan taldeak zenbat bildu duan ikustera, ta, nik...zi...ziga... zigafoa...neukan...eta...piztu...egin det... (*adi=adi ezkeraldera begira*) Ez al dator inor?...
- Jon. —Aizeak egiten duan zarata da.
- Iña. —(*Ezkefeko atera juan, eta begiratuaz*) Emen ez da inor!
- Ima. —Zigafo efitzen efi-zaiak afapatu!
- And. —Ez!...Baña...Polka'eneko kantoian Mikela Egiko'ren astoa zegon lotuta...ta nik Ixidor'i esan diot...ba...esandiot... nere zigafo piztuaz astoari mutufean ikutzeko...
- Jon. —Eeee...ne!
- Kol. —Ta zer egin du Ixidor'ek?
- Iña. —Oooo...o!
- Ima. —Esan...!
- And. —Artu du nere zigafoa...ta...juanda...
- Kol. —(*adi=adi*) Eta astoari mutufean ikutu?
- And. —(*erdi negaitez*) Bai...!
- Jon. —Eeeee...ne!
- Ima. —Eta...?

- And. —Astoa saltoka asi da...
- Iña. —Jakiña!
- And. —Atzeko anakak astintzen...
- Kol. —Min artuko zuan da!
- And. —Eta asta-otafetan zeuzkan gauzak bota egin ditu...
- Ima. —Ara...!
- And. —(negafez) Afaultzak auzi...
- Jon. —Eeee...ne!
- Kol. —Beltza egin dezutel!
- And. —Babufunak lufera bota...lokatzetara...
- Iña. —Josu!
- And. —Azak eta poñuak ere bai...
- Ima. —Baña nola egin du ori Ixidor'ek?
- And. —Nik esan diotelako!
- Jon. —Nun da orain bera?
- And. —Efi-zaiñak afapatuko zuan...
- Iña. —Guzia ire esan gaitoa egin dualako.
- Kol. —Afapatu, ta jo, edo...
- And. —Jo ez; kartzelara eraman.
- Jon. —Kartzelara?...
- Ima. —Gizajoa!
- And. —Eta ni afapatzen ba'nau?
- Iña. —Kartzelara baita, gaiztakeri ura egiteko agindu diokalako.
- And. —(Negafez) Ai!, amaaaa!... Ai, ai, ail... Amatxoool!...
- Ima. —Gabon gaba kartzelan igaro igaro bear ote du Ixidor'ek?  
(Eufukiz) Gizajoa! zertako egin ote du Andoni gaizto onen  
esana! Gurekin onara zuzen etofi ba'zifñaten...!
- Iña. —Esaten dik iri irakasleak, ofelakoa izaten jafañitzen ba'dek,  
efi guziak ezetsiko abela.
- Kol. —Beronen buruari naigabeak ekafiko dizkala...
- Ima. —Orain bezela. Gabon'a bildufez igaro bear... Juari etxera.
- And. —(Negafez) Nundik joango naiz etxera bidean efi-zaiñak afa-  
patuko nau-ta?
- Iña. —(Efatza eskura emanaz) (pafez) Jafi ari onen gañean, eta...  
(Ke zuloa erakutuz) Ortik gora aidean Sorgiñak bezela.
- Besteak —Ja, ja, ja!
- And. —Ai, ai, ail Amatxoool (Norbaitek barutik ojuka: «Katalin!») Ai ene! Nere bila datoz! (Ezkutatzen laisterka eskuitik).
- Ima. —(Ezkefeko, atera juan da) Nor da?
- Abotzak —Esan amari ea perexil pixka bat daukan.
- Ima. —Ez dago ama etxean, baña ikusiko det ba-daukan. (be-  
gitzen du arasa gañean, eta ostera atera juaten da) Ez dau-  
ka? (bafura tuaz) Aldeko Joxepa Antoni zan.

Kol. —Eta Andani, efi-zaiña zalakoan ezkutatuta!  
Guziak —A ja ja ja!

## SEIGAREN AGEĀALDIA

Imanol, Jontxo, Iñaki, Koldo, ta Malentxo.

- Malen.** —(*Eskuitik sartuaz*) Andoni negafez dago gelan. Zer du?  
ez dit esan nai.
- Iña.** —Efi-zaiñaren bildufa.
- Malen.** —Aaaa...! Mutila dalako. Nexkak ez gera efi-zaiñaren bildur izaten. Guri ez digu ezer egiten.
- Kol.** —Ezta saguak ere ez dizute ezer egiten, baña nexka guziak saguaz bildur izaten zerate.
- Ima.** —Txoroak dituk-eta.
- Malen.** —Amari txoroa deitu nazula!
- Jon.** —Beti amari ta amari. Nun da ba zuen ama?
- Malen.** —Ai gozoa egiteko gozoki bila joan da.
- Ima.** —Guk gaur aparti aundia degu...
- Iña.** —Bai guk ere.
- Kol.** —Eta guk...
- Jon.** —Guk baño ohea iñork ez beintzat...
- Malen.** —Guk! ditugu: olio-aza, bixigua, sagar-xaltxa, aia, eta...
- Ima.** —Kapia, txonta!
- Iña.** —Guk ere ofelakoxe aparti degu.
- Kol.** —Eta guk intxaur-xaltxa.
- Jon.** —Guk tufoia ere bai...
- Malen.** —Tufoia ere bai?
- Ima.** —Baita guk ere, txonta.
- Iña.** —Guri dendariak ematen digu.
- Kol.** —Baita guri ere.
- Jon.** —(*Bat-baten*) Eta noiz joan bear degu abesti-saioa egitera Txomin'engana?
- Ima.** —Zertara? ez dakik ba gaur abestu ditugula ikasitakok gurre «jaiotzaz» ibili geranean?
- Jon.** —Bai baña bestea. «Txakur gofi».
- Kol.** —Ori bidez irakatzu digu, eta ikasia daukagu.
- Jon.** —Ikasia bai zera!
- Ima.** —Ondo ikasia!
- Malen.** —«Txakur gofi»? polita alda?
- Kol.** —Gutziz polita.
- Malen.** —Ea abestu nik entzuteko...!
- Kol.** —Abestuko al degu, lagunak?
- Ima.** Bai, nere afebatxuak entzun dezan!

- Besteak** — Bai, bail  
**Malen.** — (*Txaloka*) Bai, bail Nik ere ikasi egingo det zuen abestia!  
(*Lau mutilak elkafen biran jafi ta «Txakur gofi» abesten dute*)  
**Malen.** — (*Abestia amaitzean, txaloka*) Bai polital!... Befiz, befiz, nik ikasteko!  
**Jon.** — Ez. Orain geron etxetara joan bear degu Gabon'a ospatzera...  
**Ima.** — Apari aundia egitera, ta...  
**Kol.** — Josu AUFAREN jaiotza abesti ta dantzaz ospatzera...  
**Iña.** — Belen'go artzaiak bezela...  
**Malen.** — Eta Andoni'k or gelditu bear al du, gelan, negafez?  
**Kol.** — Izan ere...! Nerekin eramango det. (*joaten da eskuitik*).

## ZAZPIGARREN AGEÑALDIA

Malentxo, Imanol, Jontxo ta Iñaki

- Jon.** — Ez du etofi naiko bildur da-ta.  
**Iña.** — Izateko ere ba-da...  
**Ima.** — Efi-zaia bila ba'dabilkio...!  
**Jon.** — Baleki emen ezkutatuta dagola...!  
**Iña.** — Emen litzake eramatera!  
**Malen.** — Nor eramatera?  
**Jon.** — Andoni eramatera!  
**Malen.** — Ene! ene!...  
**Ima.** — Eta Ixidor gizajoa?  
**Iña.** — Gizajoa! Gabon gaba Espetxean!  
**Jon.** — Zertako egin ote du Andoni gaizto onen esan okefa.  
**Malen.** — Espetxean Ixidor?  
**Ima.** — Bai.  
**Malen.** — Orduan... Zofokoen banaketan ari dagokion moltzoka netzat izango al da?  
**Ima.** — Ago ixilik begi-luzea!... Dagoan bezela gordeko degu, ta Ixidor azkatzen dutenean, orduan banaketa egin. (*besteai*) Nai?  
**Besteak** — Bai, bail (*ezkefeko atean Ixidor agertzen da, bertan geldituaz*).

## ZORTZIGARREN AGEÑALDIA

Lengoak eta Ixidor. Gero Koldo ta Andoni

- Malen.** — (*Bat-baten*) Ara emen Ixidor!  
**Ima.** — (*Arituta baita*) Ixidor!  
**Jon.** (*Bat-baten*) Ene Ixidor!  
**Iña.** — (*Arituta baita*) Nundik ator mutil?  
**Ixidor.** — (*Arituta*) Zer da?

- Ima. —Zer dan?...  
Iña. —Ez al au efi-zaiñak afapatu?  
Ixi. —(Afituta) Ni?... Zergatik?  
Ima. —Mikela Egiko'ren astoari mutufean zigafu piztuaz ikutu diokalako.  
Ixi. —Nik? (eskuitik Andoni ta Koldo agertzen dira).  
Kol. —I-xi-dor...!  
And. —Eta... efi-zaiña...?  
Ima. —Andoni'k esan du, astoari mutufa efe diokala, ta efi-zaiñak kartzelara eramán abela...  
Ixi. —Niiii...i!  
And. —Ez al diok ba nik emandako zigafu piztuaz astoari mutufian ikutu?  
Ixi. —Ez nik. Ik ori egitekotan eman diak, baña ni ez naiz ofelako biotz gogofa abereai min ematen jostatzeke... ta ire zigafu piztúa lufera jaurti ta oñaz zapaldu diat.  
Ima. —Zerk izutu du ba astoa?  
Ixi. —Andik igaro dan berebil batek.  
Guziak —(Algara aundiz) A ja, ja, ja...!  
Ima. —Ai Andoni! Andoni! ez dik estuasun txafa eman eure gaiztakeriak.  
Jon. —Ixidor ona dalako apalduko dek aurtén Gabon gabeán etxean!  
Iña. —Emen zégon kartzelan apaldu bearko ote uan bildufak-eta! A, ja, ja, ja!  
Ixi. —Orduan... abestu dezaiogun:  
Guziak —(Taldean bildu ta abesten dutu: «Ator, ator, muti! etxera»).

## Z A P I A